

**2009ko EKAINAREN 4an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko ekainaren 4an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
*Karlos Irazu Muñoa*  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
  - 2009ko martxoaren 13an egindako ez-ohiko bilkura.
  - 2009ko maiatzaren 7an egindako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 02/2009 Kreditu aldaketaren onespena, Kreditu gehigarriak modalitatean.
4. Bake epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdiaren onespena, hala bada.
5. Larrola inguruan esplanada bat egiteko obra baimena eskaera, Jon Tejeria Otermin.
6. Fakturak eta ordainketak.
7. Beste batzuk.
8. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### ***ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.***

- ▣ 2009 urteko martxoaren 13ko Ez-Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2009 urteko maiatzaren 7ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### ***ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA***

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

46/2009 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 4koa, 2009ko aurrekontuaren barruan egun dauden aurrekontu kredituak zabal ditzaketen Kreditu gaikuntzaren bidez eginiko kreditu aldaketa onartzea ebazten duena.

47/2009etik Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 14koa, kreditu erabilgarriak bidez eginiko kreditu aldaketaren hasiera onestea ebazten dutena.

48/2009 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 4koa, Ione Elisabete Larrañaga Iturria andreari hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onartzea ebazten duena.

49/2009etik Alkatetza Ebazpena, ekainaren 4koa, Jose Agustin Galarraga Trecu hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onartzea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### ***02/2009 KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA, KREDITU GEHIGARRIAK MODALITATEAN***

Ikusirik Udal honen 2009ko ekitaldiko Aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertzen dela.

Ikusirik Aurrekontu partidetako kredituak gehitzeko proposamenak eta hauek finantzatzen dituzten baliabideak, eta txostenak, ziurtagiriak eta aipatutako agirian egindako gainerako jarduerak ere aztertzen direla.

Ikusirik gastuak burutzeko premia larraia eta aipatutako gehikuntzak finantzatzen dituzten baliabideen eraginkortasuna behar bezala egiaztatuta geratu dela eta kreditu aldaketa hori Aurrekontuaren garapena aintzeko eta eragiten diren zerbitzuen kudeaketa hobetzeko mesedegarria izango dela.

Ikusirik, Idazkari-Kontuhartzaileak egin duen txostena, non jasota gerarazi baitu aipatutako espedienteak aplikarria zaion legezko araudiari egokitzen zaiola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 02/2009 aurrekontuaren kreditu aldaketa onartzea, Kreditu gehikuntzen 11.836,24 euroko zenbatekoaz eta hauek finantzatzen dituzten baliabideen kopuru berdinean eta proposamenetan ageri den xehekapen berarekin.

#### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
9.	<b>SEKTORE PUBLIKOTIK KANPOKO MAILEGUEN AMORTIZAZIOA</b>	<b>11.836,24</b>
GEHIKUNTZAK GUZTIRA ...		<b>11.836,24</b>

#### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8.	<b>DIRUZAINZAKO GERAKINA</b>	<b>11.836,24</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>11.836,24</b>

**Bigarren.-** Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **BAKE EPAILEA ETA BERE ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2009 urteko maiatzaren 19an Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkariak igorritako idatzia, non adierazten duen Larraulgo Bake Epaillea eta bere ordezkoa izendatuak izan ziren lau urteetako epea amaitzeaz dagoela eta Udaltzarrak beste lau urtetarako izendatuak izan daitezzen Bake Epaille berria eta bere ordezkoa proposatu behar dituela.

Ikusirik 2009 urteko maiatzaren 22an Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak idatzi duen txostenean dioena, zeinetan adierazten duen zein prozedura jarraitu behar den Bake Epaillea eta bere ordezkoa hautatzeko eta zeintzuk diren hautagaiek bete beharreko baldintzak.

Gaia aztertutik Udaltzarrak aho batez ondorengoa,

#### **ERABAKITZEN DU**

**LEHENA.-** Larraulgo Udalerrian lau urteetarako izendatuko diren Bake Epaillea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia egitea. Modu honetan hautagaiei legeak ezarritako baldintzaz gain ondorengoa baldintza galdutuko zaie: hautagaiak euskaraz jakitea.

**BIGARRENA.-** Deialdiaren iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki Taulan eta Tolosako Lehen Instantzia eta Instrukzio Epaitegian. Aldi berean Larraulgo herrian zehar deialdiaren bandoa zabalduko da. Modu honetan izen emateko epea zabalduko da iragarkia aipatu den tokietan argitaratu eta gehienez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetako epean.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **LARROLA INGURUAN ESPLANADA BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, JON TEJERIA OTERMIN**

*Karlos Irazu Udal zinegotzia 21.05 orduetan agertzen da Udaltzar honetara.*

Ikusirik Jon Tejeria Otermin jaunak eginiko eskaera, non Larrola ustiategiaren inguruetan esplanada bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2009ko maiatzaren 29an Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean jarritako:

**“LARRAULGO LARROLA USTIATEGIAREN INGURUETAN HORMIGOIZKO ZOLA BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*Jon Tejeria Otermin jaunak, Larraulgo bere lursailean arto gozoa eta arto berdea ensilatzeko hormigoizko zola bat egiteko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen azalpena, aurrekontua eta bi plano aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Lursaila Larrola abeltzaintzako ustiategiaren ondoan kokatzen da, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan.*

***Larraulgo 69º artikulua** abeltzaintzako ustiategien instalazio eta eraikuntza osagarriak arautzen ditu. Honen arabera, hobia inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara kokatu beharko da, ondoko lursailaren mugetatik 8 metrotako gutxieneko distantzia mantendu behar delarik.*

*Artikulu berdinak ere, metro bateko altuera gutxieneko duen landarezko itxitura bat eskatzen du, honelako lurgaineko siloek ingurumen eta paisaiaren eragina muriztearren.*

***141/2004 dekretuak**, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko sanitarioak eta ingurumenezkoak ezartzen dituenak, bere 2ª eranskinean, obra siloen zoruak eta paretak iragaitzak izango direla esaten du.*

*Arto gozoaren likidoak jasotzen dituen hobia estankoa izango da.*

*Arto gozoko ur hauek ezingo dira lursailetatik zuzenean zabaldu. Txiza urekin diluitu beharko dira edo eta simaurrarekin nahastu.*

*Baldintza hauek betetzen badira, egokia izango da udal baimena ematea.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Jon Tejeria Otermin jaunak eskatutako obra baimena onartzea, hau da, Larraulgo Larrola ustiategiaren inguruetan hormigoizko zola bat egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENGOA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

**SEIGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

DISTRIBUCIONES LOPETEGI	17,40
ARGITU ASESORES	105,68
BERRI LANTEGIA, S.L.	167,85
LASURTEGUI ATXEKI, S.L.	474,44
EDUARDO AIZPURUA IMAZ	12,81
IZFE	70,31
ANTENAS TOLOSA	182,00
INDARBI ELEKTRIZITATEA	12,75
KIROLZER	110,20
TELEFONICA	88,97
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	68,87
EUSKALTEL	170,23
IBERDROLA	17,97
IBERDROLA	137,22
IBERDROLA	46,25
IBERDROLA	227,56
IBERDROLA	142,44
IBERDROLA	15,92
IBERDROLA	167,12
IBERDROLA	168,08
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	45,94
REPSOLGAS	305,86
REPSOLGAS	109,75

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **2.898,04** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

**7.1. 2008 EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2008 ekitaldiko Kontu Orokorraren berri eman du.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

**PROPOSATZEN DUTE**

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, bere 63 artikuluan xedaturikoari jarraituz 2008 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra, hamabost lan-egunez jendeaurrean jartzea, dagokion iragarkia GAOn eta Udaleko Iragarki Taulan argitaratuz, edonork dokumentazioa aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Jasotako erreklamazio eta iradokizunekin batera, Kontu Orokorra Udalbatzarrari igorri, aztertu eta egoki baderitzo onar dezan.

**7.2.OSTARBI ERAIKUNTZAK & ZERBITZUAK AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA.**

Ikusirik 2009ko martxoaren 13an eginiko Udalbatzak Larraulgo pilotalekua konpontzeko lanen kontratua Ostarbi Eraikuntzak & Zerbitzuak enpresari esleitu ziola 36.804,48 eurotako dirukopuruan (BEZ barne).

Ikusirik Ostarbi Eraikuntzak & Zerbitzuak Larraulgo pilotalekua konpontzeko lanak amaitu dituela. Dagokion faktura aurkeztu duelarik, bere zenbateko 36.804,48 euro direlarik (BEZ barne).

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Ostarbi Eraikuntzak & Zerbitzuak enpresak, Larraulgo pilotalekua konpontzeko lanak amaitu ondoren aurkezturiko fakturaren onespena, bere zenbatekoa 36.804,48 euro direlarik (BEZ barne).

BIGARRENA: 36.804,48 eurotako gastua onestea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA